


herrera

Sporting
estatuko
liga
jubenilean

herrerako Sporting Kirol Elkartek 95-96 denboraldiko kirol balantzea egin du.

Euskal Liga Jubenilean dagoen taldea bultzatzea da helburuetako bat. Talde honek ligaren azpitxapelketa lortu du eta Estatu mailako Liga Jubenilerara igo da, ondorioz, Real, Bilbo Athletic, Eibar eta abar izango ditu arerio. Lorpen hauek elkartearen historian lehen aldiz eskuratu dira.

Era berean, Ohorezko Kadete taldea nabarmendu behar da, ligan laugarren postuan bukatu du eta datorren denboraldian Euskal Kadete Ligan jokatu du, Euskadiko kadete talde nabarmenekin integratuz.



Bidebietako tiro-gunea desagertzeaz
Bidebietako Auzo Elkartek ezagutzera eman duenez, Bidebietako tiro-gunea bi hilabeteko epean botako dute. Auzoak aspaldidanik egindako eskaera da hau, tiro-gunea arriskutsua eta kutsakorra baita. Auzoarentzat aisialdi gune gisa berreskuratzea da helburua.

altza

Larratzoko Amets parroki taldeak, Araban egingo du aurtengo udal-lekua.

Abuztua amaieran, zazpi egunetako bidaia egingo dute Zuaza irlara Altza eta inguruko gazteek.

Urtero bezala, Amets taldeak ekintza ugari antolatu ditu opor egun horietarako, hala nola, piragua, windsurfa, bela, eta abar, guztiak ere urarekin harreman zuzena duten ekintzak dira.

Udaleku hauetan 7 urtetik 14era bitarteko haurrek parte hartu ahal izango dute eta Foru Aldundiaren laguntza jasotzen dutenez, 9.500 pezeta ordaindu beharko dituzte bazkide ez direnek eta 7.000 pezeta bazkideek.

Informazio gehiago nahi izanez gero Larratzoko parrokiaren eskuratzeko aukera dago.

Molinao auzoan antzerki emanaldia izango da

gaur ostirala, hilak 2, 18.00etan Casares Kultur Etxeak antolatuta. «Antzerkia auzoz auzo» programaren barruan kokatzen da emanaldi hau. Oraingo honetan Bilboko Goloka antzerki taldeak bere azken lana aurkeztuko du: «Praka motza». Lan honen bitartez, musika eta mimoa erabiliz, haurrek denbora modu egokian pasatzen ikasten dute.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

AINHOA
taberna
Pintxoak eta kazuelitak
Sarroeta 90, MARTUTENE

Maiko Sport
K I R O L A K
Segundo Izpizua 20
Tfnoa.: 29 35 45 • DONOSTIA

Ricardo
TABERNA
ARTETXE JENERALAREN KALEA D
TFNOA.: 27 05 61

Casa Dauri
KOLTZOI ETA SOMIER MARAKARIK ONENAK
NEURRIKO OHE-ZORROAK
BURUKOAK
Fermin Kalbeton 42 • Tfnoa.: 42 33 28

HERRIA

• Beti gure preso politiko eta errefuxiatuen alde
• Bokatak, plater konbinatuak eta alaitzeko euskal giroa
TABERNA IKATZ kalea

